


Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 12a / 593. zenbakia



'Flysurf'-a:
haizea lagun,
surfa egiteko
beste aukera bat

ORAIN ETA HEMEN: SENDABELARRAK AZTERGAI/6 • KULTURA: LORE GAZTEAK-EN JAIALDIA/13

ARGAZKIA: XABIER URZELAI

Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholtzak, leihoak etab.



**AROSZTEGIA
LAGUN**

Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserria) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL

KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1
Tel./Fax: 943 79 76 03

Margoak

APAIN

MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Gida honetan azaldu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 telefonora

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63


KALEINKESTA/ Sendabelarrik hartzeko ohiturarik bai?



MIKEL ENEKOTEGI
Langillie



ANTONIO MORAGA
Jubilaue



PAULINA VILLAHUZ
Langillie.



ANA MURILLO
Etxekoandrie



XABIER IRIBECAMPOS
Langillie



TOMASA ESPEJO
Jubilaue

Mendire gutxitan jueten naz, eta gutxiago sendabelarrik hartzera. Hala eta be, siñisketan dot sendabelarretan. Medikaziñuek gauza bat osatu baiñe beste bat izorrraketan daue-eta.

Mantzanillie bakarrik ezaguketan dot, eta horixe hartzen dot. Hala eta be, sendabelarrekin egindako pomada bat be ibiltten nabil, eta oso gustora. Medi-ziñekin baiño hobeto.

Mantzanillie bakarrik ezaguketan dot, baiñe jente asko ikusten dot mendixen sendabelarrik hartzen. Holako gauzetan siñisketan dot, eta azkenaldixen asko ibiltten die.

Mendire jueten nazenien mantzanillie hartzen dot. Besterik ez, ez ditudalako ezaguketan. Beste sendabelar batzuk ezagutuko banittu, duda barik hartuko nittuke.

Bai, azkenaldixen gauza naturalak hartzeko ohiturie hartu dot eta mendire jueten nazenien sendabelar hartzen dittut: berbenak, asunak... Oso ondo egi-tten daue.

Nik ez dauket ohitura haundirik, baiñe geure amak sendabelarrik asko ibiltten zittuen. Neuk ohitura hori galdu egin dot. Gauza batzuetarako balixo daue, baiñe beste batzuetarako ez.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK TXIZA-LEKU BILAKATUTA Otolora kalean dauden bi aparkalekuak txiza-leku bilakatu dira. Jaietan sekulako kiratsa izaten da hantxe, baina ez da jaietako kontua bakarrik izaten. Asteburuetan ere asko dira txiza egitera aparkalekuen sarrerara joaten direnak. Aparkaleku horien jabeek behin baino gehiagotan aldatu behar izan dute ateko katea, txizek erre egiten dute-eta.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

Parroko aldaketa

Irailan, Jose Maria Astigarraga parrokoak San Juan parrokia utzi eta Azkoitira joango da.

ORAIN ETA HEMEN /8

Arrasatear bat Gazan

Amaia Arrizabala arrasatearra Gazan izan da, eta hango egoera zuzen-zuzenean bizi izan du.

KIROLA /10

Leire Ezpeleta eta 'Luma'

Domekan bi arrasatear horiek Aizkorriko Mendi Maratoian izan ziren, eta elkarrizketa egin diegu.

ASTEKODATUA

18

URTE EGIN DITU ARRASATE-KO PARROKOAK HERRIAN

Jose Maria Astigarraga hamazortzi urtez izan da Arrasateko San Juan Bautistako parrokoa. Irailean, baina, Arrasate utzi eta Azkoitiko parrokiara joango da parroko lanak betetzera.

BESTEKEKESANA

“Arrasateko Udalak, 1998tik hona, euskararen kale erabilera neurtu du urtero eta hartarako Siadecok asmatutako metodologia erabili du. Kaleetan dabilen jendeak zein hizkuntza erabiltzen duen jakitea da neurketaren helburua. Euskararen kale erabilera neurtzeko erabilirikako sistema behaketa sakon zuzena da, eta ez inkesta. (...) Aurtengo lagina txiki samarra izan da: ozta-ozta iritsi da unibertsoaren %20 izatera. Auzo batzuetan laginak txikiegiak izan dira (...) Xabier Isasi soziolin-guistaren iritziz, hiru faktore hauen menpekoea da euskararen kale erabilera: euskaldunen kopurua eta proportzioa, euskaldunen banaketa eta euskaldunek euskararekiko duten leialtasuna, hain zuzen.”
JOXE FELIX DÍAZ DE TUESTA
'Euskonews&Media'/02-06-21

HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



Euskal Herritik Kaliforniara

AANAAAAAAAAAAAA Ze moduz Frisco-n? Neu hamen, txarto. Irungo alardia ospatu da eta deprimiduta nabil. Ana, hainbeste maitte dodan Euskal Herri hau hain da sexista. Eta jentiek, ezetz.

Eta andereño Mariñek esan euskun konparaziñuek gogaikarrixak diela, baiñe Anetxok beste umiek baño hobeto marrazketan dittuela aurpegixak, aho, sudur eta guzti. Eta neu ez nago andereño Mariñekin ados konparaziñuen asuntuen. Askotan konparaziñuek erreferentziak izeteko modu bakarrak die, eta hauek gauza berri edo/eta desberdiñak ezaguketako biherrezkuek die. Neu bi herrialdetan bizi nazenez, beti bixak konparetan nabil: Seattle-en kotxie garajera eruen geuen behin, eta haxe neure sustue mekaniko danak emakumiek ziela ikusterakuen. Olympiako unibertsidadera kurtso bat egittera fan nitzen beste baten,

eta haxe sustue kataloguen gerentziako postu gehixenak emakume lesbianen esku euzela irakurri neuenien. Eta NYn telebista bat eroatera fan gitzenien, eta mutil-lagunak, korbata ta guzti, dendarixari galdetu ostien, hara non dendarixek berba egitterakuen neuri be begiraketan eustela.

Zergaittik sustau nitzen? Ezaguketan ez nittuen egoerak zielako. Erreferentzia horreik biher izen nittuen hamen be egoera horreik existidu biherko leukiela konturaketako.

Eta erreferentzia horreik eta beste askok Euskal Herrixa sexista dala erakusten duskue. Alardeko arazue ez dago Irunen eta Hondarribian, Euskal Herrixan baizik.

Eta Anetxo marrazkilari ona bada, egunero aitatzokin tiki-tiki aurpegitxuek egitten ibiltten dalako da. Guk emakumiok be, egoerie aldatu daixen, aurpegitxo asko landu biherko dittugu.

Agur, Ana. To be continued.

“Ana, hainbeste maitte dodan Euskal Herri hau hain da sexista. Eta jentiek, ondiokan, ezetz”

Arrasate

Otolora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 12**
Español. Araba etorb. 943 79 18 65
- ZAPATUA, 13**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- DOMEKA, 14**
Azkoaga. Iturriotz. 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 15**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- MARTITZENA, 16**
Irizar. Erguin, 11. 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 17**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74
- EGUENA, 18**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- ARRASATE**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZTA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | |

OHARRAK

SANTA MARINAKO JAIK
Gaurtik domekara bitartean Santa Marinar jaiak ospatuko dituzte. 19:00etan hasiko dira, eta 23:00etan, Los Pérez de Nochistlán mariachien kontzertua izango da. Bihar, goizean, buruhandiak, bolo-palma txapelketa eta pilota finalak jokatuko dituzte. Era berean, trikitalariek kalejira egingo dute eta doke eta igel joko txapelketak jokatuko dituzte. Eguerdian, auzoko erretiratuek bazkaria izango dute. Arratsaldean, umeendako jolasak, pilota partiduak eta dantzaldia. Domekan, herriz, areto futboleko finalak, umeendako jolasak eta herri bazkaria egingo dute, besteak beste.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Datorren eguenean, uztailearen 18an, *Quadrophenia*, 22:30ean, Monterron parkean

EUSKAL DANTZAK IKUSGAI
Martitzenean, uztailearen 17an, 22:30ean, Monterronen, Lore Gazteak dantza taldeak euskal dantza emanaldia egingo du.

ENTREGAREN AURKA
Bihar, 19:30ean, Seber Altuben, Eugenio Barrutia-bengoa *Arbe* entregatu ez dezaten, kale bilkura.

AEDren AGENDA

KULTUR ERROTA
Uztailearen 20an, Usurbilgo Labrit musikariak kontzertua emango du Arrasaten. Kontzertua AEDk antolatuta du eta berau Kultur Errotaren barruan kokatu dute. Oraindik ez dute zehaztu kontzertua emango duen lekua. Labritek dagoeneko bi disko kaleratu ditu eta azkena, *Nori egin so* izenakoa, aurkeztuko du.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskiri
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Udalak gaitzizenak biltzeko beka ateratu zuten

Gaitzizenek Arrasaten zuten zabalkundea eta erabilera handia kontuan hartuta, horiek bildu eta aztertzeko beka bat ematea erabaki zuten Udalak, 780.000 pezetako dirulaguntzarekin. Eskaera Euskal Filologian lizentziadunek edo curriculum egokia zutenek egitea eskatu zuten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Galosua"



Dotorea, kolore eta itxura onekoa.
- *Erropia oso maixa, maiza zeukan arek.*
Eskaxa zeukala. Zarra ero, beintzet ez galoso galosua.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Vienara Gorka Rubialesen eskutik eta udan eguzkia hartzeko gomendioak

Austriaraino hurbilduko gara datorren eguaztenean, Vienan bizi den Gorka Rubiales arrasatearraren bila. Bilbon Musika Irakasle ikasketak egin ostean, Madrilera abiatu zen Musikologia ikastera. Egun, baina, Erasmus-eko beka baten bitartez, Vienan dago irailaz geroztik. Hasieran gogorra egin bazitzaion ere, gustura bizi da orain Vienan, eta ondo asko ezagutzen ditu hiriko txoko zein kaleak. Austriako hiriburua ezagutu gura baduzu, datorren

eguaztenean Gorka Rubiales gidari izango dugu zuzen-zuzenean. Eguenean, 10:00etan, Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak eguzkia hartzeko aholkuak emango dizkigu. Beltzaran jarri gura baduzu, zer jatea komeni zaizun esango dizu Amaiak. Ez hori bakarrik, kolore beltzaranak luzaro iraun dezan eta larruzala zahartu ez dadin, zer jan ere esango digu. Hori, 09:00etatik aurrera, *Egunon* saioan.

HAUGIROA!

MINIMOA
Egubakoitza, 5 **7°C**

MAXIMOA
Domeka, 7 **27°C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **18,2 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 3	24 °C	10 °C	2,8 l/m ²
Eguena, 4	20 °C	14 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 5	24 °C	7 °C	2,5 l/m ²
Zapatua, 6	18 °C	14 °C	0,2 l/m ²
Domeka, 7	27 °C	8 °C	- l/m ²
Astelehena, 8	18 °C	16 °C	1,4 l/m ²
Martitzena, 9	23 °C	14 °C	11,3 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



Gorka Rubiales

Emakume maratoilariak

Azpimarratzekoa da Leire Ezpeletaren eta Rosa Lasagabasterren balentria. Domekan Aizkorriko Maratoia egin zuten, eta biak podiumera igo ziren. Rosa eskoriatzarra lehena izan zen emakumeen artean, eta Leire bedoñarra hirugarren. Elkarrekin berritako eskainiko dizuegu asteburuan. Bestalde, Amaia Arrizabalagak Palestinan, Gazan, bizi izandako esperientziaren berri eman digu. Handik etorri berri da eta hango egoera zaila azalduko digu.

ASTEABIHITZETAN

Berriro ere lapurretak

Orain dela bi aste Zubizarreta Galeria 44 opari dendara eta Corte Luis jantzi dendara sartu ziren lapurrak. Joan den eguaztenean ere lapurrek lana izan zuten, Lasagabaster jantzi dendara eta Tamayo paper dendara sartu ziren-eta.

Kontua da, bi asteren buruan Arrasateko erdialdeko zortzi denda bisitatu dituztela lapurrek. Lapurretak modu berdintsuan egin dituzte denda guztietan; atzeko kristala hautsi eta kutxa erregistratzaileak lapurtzen ahalegindu dira. Dendariak oso haserre daude, euren esanetan ez direlako behar den moduko neurriak hartzen.

Fagor Automotion Eskoriatzara

Epeak betetzen badira, urte amaierarako Fagor Automotionek lantokia irekiko du Eskoriatzan. Bertan banaketa zerbitzua jarriko du Arrasateko enpresak.

Egun, Fagor Automotionek hiru lantegi ditu. Nagusienak Arrasaten eta Usurbilen daude, eta hirugarren lantegia Txinan dago. Eskoriatzakoarekin laugarren egoitza irekiko dute. Arrasateko enpresak 550 langile ditu, gehienak Euskal Herrian, baina kanpoan ere saltzaile sare handia du. Fagor Automotionek ekainean Made in Euskadi saria jaso zuen Bilbon.

Uztaileko kultura ekintzak

Aurten ere, uztailean, Arrasateko Udaleko Kultura Sailak ekintzak antolatu ditu.

Lehenengo ekitaldia joan den eguenean Monterrongo parkean eskaini zuten filma izan zen. Monterronera hurbildu zirenek Juan Jose Campanellaren *El Hijo de la Novia* izan zuten ikusgai, nahiz eta eguraldiak ez zuen larregi lagundu. Uztailean, beraz, Monterrongo parkean zinemas gozatzeko aukera izango da. Datorren eguenean, *Quadrophenia* filma izango da ikusgai.



Sanferminak Arrasaten

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, Txatxilipurdiko umeek aurten ere behar den moduan ospatu dituzte San Fermin jaiak. Ezin izan zuten entzierrorik egin, baina zezen-jolasak egin zituzten. Gazteluondon, eguerdiko hamabietan bota zuten etxafuegoa, eta horren ondoren, jolastera!



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Hiesa ez da desagertu!

Egunotan, Bartzelonan hiesaren gaineko nazioarteko konferentzia egiten dabilta. Konferentzia horretan atera dituzten ondorioen artean, Afrikako herritarrek bizi duten egoera latza nabarmendu dute. Horren adibide dira hainbat adituk eman dituzten datu beldurgarriak: esaterako, Hego Afrikako biztanleen herena hiesaren

birusak kutsatuta dagoela. Eta hori ez da hies tasa altuaren Afrikako nazio bakarra.

Duela hainbat urte, Europan eta AEBetan hiesaren gaineko alarma gorria piztu zen. Sasoi hartan, mendebalean gaixotasun hori izugarri hedatu zen eta lagun asko hil ziren. Gerora, zelanbait, prebentzio teknikak zabaldu ziren eta behin-

goz mendebalean hiesaren hazkundea gelditzea lortu zuten.

Egun, gure kalterako, badirudi hiesa egon badagoe la ahaztu dugula. Gure kalterako diot, bi arrazoirengatik: bata, mendebalean ere prebentzio lana egiten jarraitu behar dugulako; eta bestea, Afrikan informaziorik, prebentziorik eta horiek ahalbideratzeko gailurik ez dagoelako. Horregatik eta mendebalak laguntzen ez duelako, hiltzen ari dira.

ASTEKOIRUDIA



OSPITALE ZAHARREKO GAZTETXEA BETIKO ITXI DUTE

Aurreko asterako iragarri bagenuen ere, gazteek atzo atera zituzten gaztetxetik euren gauzak eta ospitale zaharreko gaztetxeak atek betirako itxi dituzte. Gurea zinemako gaztetxea itxi zenean ez zirudien herrian halako beste ekimenik sortuko zenik, baina 1991. urteko Aste Santuan gazte batzuk ospita-

le zaharrera sartu ziren. Orditik gaur eguneraino, hamaika urtetik gora egin dituzte gaztetxe horrek eta, behin eta berriro hortik joan behariko zirela iragarri arren, ehunka ekintza eta ekitaldi egin ahal izan dituzte. Ez da marka txarra egin dutena, eta ea gaztetxe berrian ere goiari eusten dioten! //B

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

arbolapeta

arrasate

beinke

AgR

García Ripa

ERREFORMAX S.L.

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak

Ateak

Armairu enpotratuak

Armairu-fronteak

Mota guztietako zoruak

Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak

Gortinak, mahai eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

ELKARRIZKETA

ESTEBAN LASKURAIN/NATURAZALEA

“Hemezortzi bat sendabelar daude edozeinek etxerako hartu beharko lituzkeenak”

UBANE MADERA

Esteban Laskurain ekarri dugu oraingo honetan gure tarte honetara. Sorluzetarra da, baina Arrasaten bizi da aspaldi. Sendabelarreko duen zaletasuna dela-eta egin diogu elkarrizketa, geroago eta gehiago zabaltzen ari dira-eta sendabelarrak:

Zela piztu zaizu sendabelarreko zaletasun hori?

Alde batetik, baserri girokoa naiz eta belarren kultura hori pixkatxo bat bizi izan dugu; galtear, baina bizi izan dugu. Uste dut baserrian kultura hori gehitxoago gorde dela kalean baino. Edozein baserrian erabili izan dira edo pertsonendako edo ganaduaendako dozena bat belar. Beste alde batetik, natura zalea izanda, mendian ibiltzea, belar arraroak ikustea, hartzea, etxera etortzea eta katalogatzea asko gustatzen zait. Gero, hortik aurrera, landare horrek propietateak badiu, liburutik liburura begira hasten naiz. Irakurri eta fitxa egiteko gogoia badut, horretarako prestatzen dut guztia. Eta gero, aukera badaukat, pertsona nagusiren batekin hitz egiten dut. Hori da azkeneko puntua. Nik 91 bat sendabelar ditut horrela landuta. Baina, orain erabilera asko galdu da; askotan ez dute jakiten zertarako den.

Ezagutza horrek aldatu du zure bizimodua?

Nik ez dut esaten medikua-rengana ez joateko eta horrelakoak. Baina, hemen 100 belar edo ezagutu ahal dira, sendabelarrak. Denen erabilera ez da berdina; batzuk ez dute propietate asko; beste batzuk oso zailak dira, beste batzuen ez dago erakutsita... Baina dozena eta erdi edo hemezortzi-hogei bat sendabelar badaude edozeinek etxerako batu beharko lituzkeenak. Orainxe da sasoi, gainera.

Belar horien izenen bat...

Kamamila: tripako minendako, digestio kontuetarako. Berbena: enplastoa egiteko, sinusitisarendako, eta infekzioendako. Pasma belarra: oso ona, antibiotiko moduan erabili daiteke, baina, kontuz ibili beha da, berbena baino eragin gogorragoa duelako. Pasma belarrarekin arau bat dago: hiru goizetan baraurik hartu behar da eta gero, astebetean atsedean hartu. Anginendako ere oso ona da. Beherakoarendako, berriz, larraren pujak erabiltzen ditut; egostura egin (2-3 minutuan irakiten eduki) eta egunean bizpahiru aldiz hartu. Milorria ere garrantzitsua da (zartagin-belarra



ARGAZKILARIA

*“Orain horren modan dagoen depresioari aurre egiteko belarra ere badugu: *Hiperycum Perforatum*”*

esaten zaio Plazentzian), kamamila moduan erabili daiteke, eta digestio zailendako, edo gastritis izanez gero, kamamila baino hobea da; orbaintzeko ona da, baita odoluzkiendako ere, barrurako...

Eta adibidez, orain modan dagoen depresioari aurre egiteko belarra ere badugu: *Hiperycum Perforatum* edo San Juan belarra. Orain daude batzueko ondo. Depresioaren kontrakoa da eta, horrez gain, hainbat gauza orekatzeko ona da. Ez du inolako kontraindikaziorik... orain, amerikanoak kapsuletan sartzen ari dira *Hiperycum*-ak, asmakizunik onena balar moduan.

“Ohitu egin gara dena elaboratuta kontsumitzen (garbituta, finduta, zerbait gehituta, eta abar)”

“Belar txar” esaten diegun asko erabilgarriak dira, ezta?

Kukufrakak, adibidez, oso onak dira bihotzerako. Baina, oso dosi txikia behar da eta aholkatzten da norberak ez batzea eta ez hartzea. Hau erabili behar denean, hobe da belar denda edo botikan preparatuta bilatzea.

Baina, jendeak ez ditu, oro har, sendabelarrak ezagutzen...

Nik uste dut, jateko beste gauza askorekin berdindatzen dela. Ohitu gara dena elaboratuta kontsumitzen (garbituta, finduta,

“Edozein animatuko nuke esandako dozena bat landare, patxadaz hartu, eta kontsumorako norberak batzera”

zerbait kenduta, zerbait gehituta...), eta azkenean, “zer den ere” oso garbi ez dakigula, baina, produktu eroso da, eta horixe da kontsumitzen duguna. Horrek urrundu gaitu. Gure aurrekoek naturatik egiten zuten dena: jan, sendatu... bizi. Gaur badugu natura ezagutzeko beharra eta bide horretatik ere gerturatu daiteke. Ezagutzuz sentsibilizatu eta errespetatu, eta gero, nola ez ditugu bada hor eskura ditugun sendagaiak erabiliko???

Uste duzu orain geroago eta gehiago hedatu direla (geroago eta denda, mediko... natu-

rista gehiago daude)?

Bai, eta batzuentzat moda da orain naturan kuxkuxeatzea... Esan daiteke sentsibilitateren bat pizten ari dela. Baina, tratamendu aldetik ez direnez beste sendagaiak bezain erosoak, gero ez dira horrenbeste erabiltzen. Lan gehitxoago behar dute... Horrez gain, emaitza aldetik, batzuk efektiboak dira eta eragina azkar samar egiten dute; baina, beste askorendako konstantzia behar da, jarraipena egitea, eta efektuak poliki-poliki igartzen ditugu. Baina, gaur egun astirik ez dugu, eta ohituta gaude pilula hartu eta efektua segituan igartzen.

Dena dela, uste duzu jendea fidatzen dela sendabelarrekin?

Uste dut fidatzeko norberak sinesmena behar duela. Edozein gaixotasun sendatzeko sendatu zaitezkeela sinistu egin behar duzu. Sendabelarren gaia norberak landuz gero, alde batetik natura ezagutzen hasten zara: belarra aurkitu, katalogatu, ezagutu... eta gero hasten zara irakurtzen grekoek zer egin zuten, beste herrietakoek... poliki-poliki norbera bere burua konbentzitzen doa. Eta, azkenean, norberak belar hori noizbait erabili behar izanez gero, ordurako konbentzita eta preparatuta dago sendatzeko. Nik uste dut edozer sendatzeko, egiten den %70 geurea dela. Jakina, badaude gaitz batzuk kendu beharrekoak, baina gaur egun dauden depresioak... geureak dira. Pentsatu behar dugu lehen horrekin, sendabelarrekin sendatzen zirela, ez zegoela besterik.

Rallyak eta erakusketak ere egin izan dituzu...


Bai, sendabelarrak batzueko rallyak eta gero, batutakoarekin erakusketak egin ditugu: Plazentzian lehenengoa egin genuen orain dela lau urte, eta inguruko zaleak elkartu ginen. Inguruko edozeinek, nahiz eta gutxi jakin, sendabelarren munduan sartuta badago, beti dakar zerbait berria norberak ez dakiena. Hortaz, horrelakoetan egiten den talde lana nabarmenduko nuke. Orain gutxi Arrasaten egin genuen, AEDk pentsatuta. Hamar lagun etorri ziren eta oso ondo ateratu ziren. Horrez gain, sei laguneko lan talde interesgarria sortu zen antolaketa lanak egiteko.

Sendabelar zalea izanda, transgenikoak bai ala ez?

Ez. Horretan gehiago sakondu barik, ezetz esango nuke.

Emango zeniguke gomen-dioren bat...

Edozein animatuko nuke lehen esandako dozena bat landare, patxadaz hartu, eta etxeko kontsumorako norberak batzea.



Hemezortzi urtez izan da Jose Maria Astigarraga parrokoa Arrasaten. Orain, Azkoitian jardungo du.

ARTXIBOA

ELIZA/Gipuzkoako gainerako herrietan moduan, Arrastan ere parrokoa aldatuko dute

Parroko aldaketa izango da Arrasateko parrokan

UBANE MADERA

Arrasateko San Juan parrokiak parroko berria hartuko du irailetik aurrera. Genaro Lekuona bergararra etorriko da Azkoitiatik Arrasatera. Jose Maria Astigarraga, berriz, Azkoitiara joango da. Jose Mariak penaz hartu ei du albiste hori.

Gipuzkoako hamalau artzapezpikutegitan moduan, Arrasaten ere parrokoa aldatuko dute datoren irailean. Jose Maria Astigarraga parrokoak adierazitako moduan, "gotzaidi guztian dago antolamendu berria egiteko nahia. Datozen urteetarako presatzeko da hori, izan ere, abadeak asko murriztu dira eta, ondorioz, proiektu berria egiten ari gara. Unitate pastoralak sortzen berriz, Bergaran eta Aretxabaletan ere egingo dute parroko aldaketa eta, litekeena da, Arrasaten, Jose Maria Astigarraga parrokoaz gain, beste aldaketaren bat zein beste ere ikustea. Parrokoak gaineratu digunez, planifikazio zabal-zabala da egiten ari direna.

PENAZ

Jose Maria Astigarragak penaz hartu ei du leku aldaketaren albiste. "Gurea ez da egoera norma

la. Abade bati eskatzen zaionean parrokia jakin batean zerbitzua ematea, ez dator lan bat betetzera, baizik eta parrokia horrekin bat egitera. Horrela, parrokia hori bere familia bihurtzen da. Berak ez du familia haragizkorik bere etxean, herritarrak bihurtzen dira etxeko. Zure lagun handienak dira. Hortaz, ez da lan harremana bakarrik, hori baino askoz ere sakonagoa da, sinemena izan edo ez izan. Hortaz, bizi-modua utzi behar da aldaketa egitean. Ez da ez lana ezta tokia

"Abade batek bere bihotza eta bizitza osoa aldatzen du parrokiak aldatzen dutenean"

Jose Maria Astigarragaren ordez, Genaro Lekuona bergararra etorriko da

uztea ere. Abade batek bere bihotza eta bizitza osoa aldatzen ditu". Nabarmendu du hori dela gogorrena; alegia, leku berrian jendea berriro ezagutu beharra eta bizi-modua berriro egin beharra.

IBILBIDE LUZEA ARRASATEN

Izan ere, ibilbide luzea egin du Jose Maria Astigarragak Arrasaten. Hemezortzi urte eman ditu hemen, hiru ekinaldi, hortaz. "Izendapenak normalean sei urterakoak izaten dira, nahiz eta gehienetan luzatu egiten diren". Besteak beste, San Juan parrokia eraberritzeko lanak bultzatu ditu berak urte horietan. Edozelan ere, Arrasatera etorri aurretik, Nuarben eta Hernanin ere izana da Jose Maria Astigarraga.

BERGARARRA ETORRIKO DA

Jose Maria Astigarragaren ordez, Genaro Lekuona bergararra etorriko da. Azkoitian eman ditu azkeneko 24 urteak, eta orain Arrasaten ekingo dio parroko lanari. Jose Maria Astigarragak kontatu digunez, "hogeita lau urte eta gero, hotz-hotzean toki berri batera etortzea gogorra da. Eta, bera ere apur bat beldurtuta badago, ea ondo hartuko duten zalantzarekin...".

Kontuak kontu, irailean izango da hori guztia. Bien bitartean, betiko parrokoarekin segituko dugu.

LABUR

Martin Aranburu Eusko Alkartasuneko kidea Arrasaten izan zen eguaztenean

Martin Aranburu Eusko Alkartasuneko Gazte Abertzaleak taldeko presidentea eta Legebiltzarreko kidea Arrasaten izan zen eguaztenean hitzaldia ematen.

Gaur egun Euskal Herrian bizi dugun egoera politikoa abiapuntu moduan hartuta, bereziki, Batasunaren ilegalizazioak ekarriko dituen ondorioen berri eman zuen. Lege horrek dituen arriskuen berri, hain zuzen ere. Eusko Alkartasunaren asmoa izan da, komunikabideak albo batera utzita, zuzenean alderdiaren ikuspegiaren berri ematea herritarrei.

Baserriaren inguruan egin beharreko inbertsioak diruz lagunduko ditu Diputazioak

Baserriarrendako dirulaguntzak emango ditu Gipuzkoako Diputazioak. Nekazaritzatik bizi diren baserriarrek, nekazari profesional gazteek, nekazari eta abeltzainen elkarteek eta baserriari lan egin arren, bizitzeko bestelako diru iturriak dituztenek eskatu ahal izango dituzte dirulaguntza horiek. Dirua banatzeko orduan, berriz, kontuan hartuko dira helburuak eta nori egokitu zaion laguntza.

Dirulaguntza horiek eskatzeko epea ekainetik dago zabalik eta urriaren 31ra arteko astia izango da.

Gernika Oinezkoen Zumardiko lanak bukatzeko epea ipiniko du Udalak

201eko uztailan sinatu zuten Gernika Oinezkoen Zumardiko lanak hasteko agiria, eta dagoeneko lanen zatirik handiena eginda bada ere, adibidez, oraindik zubia bukatu barik dago. Erremate lan batzuk falta dira: Zarugaldeko eskailerak guztiz amaitu barik dade, baina, hori baino garrantzia gehiago duen beste lan bat ere falta da: Gorostizako zubia. Lan horiek atzerapen bat baino gehiago izan dute orain arte, hori dela eta, Udalak eguaztenean bilera egin zuen lanok bukatzeko data zehatza erabakitzeko.



Santa Marinako jaiak dira asteburuan

Gaur hasi eta domekara arte jaietan murgilduko dira Santa Marinako auzokideak. Adibidez, gaur bertan, 23:00etan, Los Pérez de Nochistlán mariachien saioa izango dute.

Zapatuan, berriz, ohiko Bolo-Palma txapelketaz gain, pilota finalak izango dira, doke eta igel txapelketak, erretiratuetako bazkaria eta baita umeendako ekitaldiak ere. Adibidez, 19:00etan bitsaren jaiak izango dute. Domekan, berriz, goizean Bolo-Palma eta areto futbola izango da, herri bazkaria 14:30ean, magia saioa iluntzean eta 20:00etan, Kiñu orkestra. /UM

ELKARRIZKETA

AMAIA ARRIZABALAGA/KOMITE INTERNAZIONALISTAK TALDEKO KIDEA

“Hitz batean, nik Gaza kartzela baten moduan deskribatuko nuke”

ARRASATE IRRATIA

Palestinan bederatzigun egun egin ditu Amaia Arrizabalaga arrasatearrak. Komite Internazionalistak taldeko kidea da Amaia. Irailera hara joateko brigada bat antolatzen ari direla kontatu digu beste gauza askoren artean:

Non egon zarete ?

Joan garenak bi taldetan banatu ginen. Bata Zisjordaniara joan zen eta bestea Gazara. Ni Gazan egon naiz, besteak beste.

Hango egoera ikustera eta brigada bat antolatzeko asmorekin joan zarete, ezta?

Bai. Egoera ezagutzeaz gain, gura genuen ikustea ea zer aukera dugun harako brigada bat antolatzeko. Eta ikusi dugu aukera guztiak ditugula, izan ere, palestinarrak oso ondo antolatuta dute guztia eta jendea joateko eskatzen ari dira. Nazioarteko kideen presentzia behar dute euren egoeraren berri munduari emateko, batetik, eta bestetik, Israeli aditzera emateko palestinarrak ez daudela bakarrik.

Laburbilduz, zer ikusi duzue han?

Hitz batean, nik hura kartzela baten moduan deskribatuko nuke. Bizi dira hesien artean, euren lurralde barruan egiten dituzten mugimendu guztiak kontrolatuta daude, eta beti dute edo metraileta bat zain edo tanke bat zain. Giza eskubideen aldeko talde batekin izan gara. Oso informazio baliagarria eman digute.

Beldurra izan duzue?

Apurtxo bat bai, izan ere, hemen ez gaude tankeak ondoan



ARTXBOA

ikusten ohituta edo metraileta bat burura apuntzatzen izatera ohituta. Bagenekien ziurrenik ez zela ezer gertatuko, baina tiroak entzuten dituzunean...auskalo. Eurek duten beldur bera izan dugu. Baina, palestinarrak oso gogor eusten ari dira, benetan txalogarria da nola bizi diren. Izan ere, Israelen ekintza guztiak

herritarren kontrakoak dira. Herritarren etxeak, eskolak, lurrak... suntsitzen ari dira; hori egiten dute jendea beldurtzeko eta jendeak alde egiteko, izan ere Israelen bere lur-eremua zabaldur du eta muga inguruan dauden etxe, lur...guzti-guztia zantpatzen ari da tankeekin eta lur hondeatzaileekin.

Autobus urbanoan aldaketak izango dira abuztuan

Oporrak direla-eta, aldaketa txiki bat izango du herri barruan ibiltzen den autobusak. Leintz Garraioak, Arrasateko autobus urbanoa kudeatzen duen enpresak Arrasate Irratiari adierazi dionez, oporretan jendea beranduago mugitzen da. Hori dela eta, goizeko zortzietan hasi beharrean, bederatzietan egingo dute lehenengo bidaia autobusek. Gainerako zerbitzuak berdin-berdin ibiliko dira eta, jakina, bono-busa ere betiko moduan erabili ahal izango da abuztuan ere.

Bestalde, herri barruko autobus urbanoaz gain, gogoratu beharra dago herri artean ibiltzen diren autobus zerbitzuak ere

murriztu egiten dituztela abuztuan. Hortaz, adi ordutegi berriei.

AUTO BAKO EGUNA

Ibilgailuen kontuekin segituz, baina gaia zeharo aldatuz, berriz, Udaleko Ingurugiro Batzordeak jakinarazi digunez, Auto Bako Eguna antolatu du Udalak irailaren 22rako. Autoen joan-etorriak ingurugiroarengan, eta pertsonon osasunarengan duen eraginaz sentsibilizaraztea da egun horrek duen helbururik garrantzitsuena. Oraingoan, egun hori antolatzeko adjudikatu du Udalak. Gero, antolaketa lanak aurrera doazen heinean, egun hori zela egingo duten zehaztuko dute.

IKASTAROAK

Eta, Udaleko gaiekin segituz, Eusko Jaurlaritzak irisgarritasuna bermatzeko lanen barruan zein dirulaguntza eman dion jakinarazi dio oraingo astean Udaleko Gobernu Batzordeari. Jakinarazitakoaren arabera, ia ehun eta hogeita mila euroko laguntza eman zaio Arrasateko Udalari. Hain justu ere, zahar egoitzako igogailua eraberritzeko, Monterron-Erguin oinezkoen zumardirako eta Udaletxeako komunak egokitzeko. Horrekin batera, jakinarazi dio ez duela laguntzarik jasoko ez kiroldegian egindako lanengatik ez eta harresi kanpoko urbanizazio lanengatik ere.

LABUR

Amaia Arrieta preso arrasatearra kartzelako erizaindegian dago

Joan den astean iragarri genuen zenbait euskal preso politiko txandakako gose greba egiten ari zirela. Tartean, Amaia Arrieta arrasatearra ere bazen. Baina Etxerat elkarteak aditzera eman digunez, Amaia Arrietak egubakoitzean bertan utzi behar izan zuen astebeteko baraualdia. Etxerat elkartearen esanetan, “gaizki sentitzen hasi zen, eta, ondorioz, espexeko medikuari deitu zion. Hark berehala gose greba uzteko esan zion, takikardia atakeak zituela-eta”. Horrekin batera, medikuak esan zion bihotzeko frogak egin behar zizkiotela ahalik eta lasterren; hala ere, Etxerat elkarteak gaineratu digu oraindik ere ez diotela inolako frogarik egin. Era berean, gaineratu dute arrasatearra oraindik ere kartzelako erizaindegian dagoela.

Etxerat elkarteak, egoera hori salatzeaz gain, presoiei dagokien legea betetzeko exijitu dute.

‘Arrasateko Emakumeak XX. mendean’ liburua aurkeztuko dute datorren astean

Emakumeak protagonista hartuta, XX. mendeko Arrasateko historia liburu batean batu dute eta laster kalean ikusi ahal izango dugu. “Baserritarrak, lantegiko bihergiñek, emagiñak, kanpotik etorritakuek, mojak, kirolarixek, musikarixek, ikasliek, etxeko bihergiñek, feministak, eurek berba egingo daue eta historixa diferentia erakutsiko dauskue”, horixe da liburuak kontatzen duenaren laburpena. Argazki ugari ditu, eta baita, protagonista izan diren emakumeen pasadizo eta bestelakoak ere. Horrekin guztiarekin, mende hasieratik ia gaur eguneraino, Arrasateko emakumeen bizipenak batu dituzte liburuan.

Datorren martitzenean, uztailearen 16an, izango da liburuaren aurkezpena. Eguerdiko hamabietan izango da Udaleko osoko bilkura aretoan. Han izango dira, besteak beste, Udaleko ordezkariekin batera, liburuan protagonista izan direnetako batzuk. Baita, liburuaren egiten ibili direnetako batzuk ere. Liburuaren Emakumeen Kontseiluak eta Arrasateko Udalak bultzatu eta finantzatu dute. Laster liburu dendetan izango dugu salgai.

**Sutea Daglas bideo-klubean**

Joan den egubakoitzean, sua piztu zen Otalora Lizentziaduna kaleko Daglas bideo klubean. Eguerdian gertatu zen hori eta arratsaldeko laurak ingurura arte izan ziren suhiltzaileak sua emendatzen. Ondorioz, Otalora kalearen zati bat itxi egin behar izan zuten eta autoak beste kale batzuetatik desbideratu. Mikel Larrañaga suhiltzaileak adierazi digunez, seguru asko zirkuitu labur batek eragin zuen sutea eta, kalte handiak izan zituen Daglas dendak, bereziki, goi aldeko bulegoetan. Besteak beste, ordenagailuren bat eta bideo-zinta dezente erre zitzaizkien.



UDALEKUETAN, ONDO BAINO HOBETO

Aurten ere Txatxilipurdiko lagunek udalekuak antolatu dituzte; hortaz, uztailan Arrasateko neska-mutikoez izango dute zer egin eta non jolastu. Astelehenean, esaterako, sanferminak ospatu zituzten, nahiz eta eguraldi txarragatik ezin izan

zuten entzierrorik egin. San Fermin santuari abesten zaion abestia euskaratu ere egin dute, eta astelehenean, San Fermin santuari egiten zaion eskaintza euskaraz entzun ahal izan genuen. Uztailan barrena ehunka ekintza egingo dituzte.

ERROZIOAREN ERROMERIA ARRASATEN

Urtero moduan, aurten ere Al Andalus elkarteak ez dio hutsik egin Errozioko Ama Birjinaren erromeriari. Domeka goizean egin zuen Mondragoeko Al Andalus elkarteak urteroko erromeria. Errozioko Ama Birjinarekin Santa Teresako elizaraino egin zuten ibilbidea. Santa Teresako elizan meza berezia izan zen, eta erromesaldian inguruetako andaluziarrek elkar ikusteko aukera izan zuten.



KARKABAL ELKARTEAREN LIBURUA

Karkabal elkarteak hogeita bost urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko, elkartearen gaineko liburua egin dute. Aurkezpena joan den asteburuan egin zuten, eta bazkide asko hurbildu ziren Pablo Urangan dagoen elkartera. Urtarrilean

hasi ziren Karkabal elkarteak liburua prestatzen. Informazioa zazpi bazkideren artean batu dute, eta Jose Antonio Zeziagaren argazkiek jantzi dute liburua. Liburua aurkeztu eta gero, hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko bazkari ederra egin zuten.



ELKARRIZKETA

LEIRE EZPELETA ETA LUIS MARI UGARTE 'LUMA' / AIZKORRIKO MENDI MARATOIAN MONDRAGOETAR ONENAK

"Oso bestelakoak dira mendira paseatzera joatea edo txapelketetan ibiltzea"

XABIER URZELAI

Bi mondragoetar horiek, Leire Ezpeletak eta Luis Mari Ugarte Luma-k, lan ederra egin zuten joan den domekan Aizkorriko Mendi Maratoian. Leire hirugarrena izan zen emakumezkoetan eta Luis Mari hogeita seigarren postuan iritsi zen.

Dagoeneko ahaztu duzue Aizkorriko Mendi Maratoia?

Luis Mari: Ez. Oraindik hantetan min apur bat daukat, eta, horrez gain, ibilbidea behin eta berriro buruz gainbegiratu dut. Horrelakoak ez dira erraz ahazten.

Leire: Bai. Oraindik hantetan min daukat, baina dagoeneko ahaztuta daukat proba.

Proba gogorra izan ei zen.

Leire: Bai. Lehenengo aldia da horrelako proba bat egiten dudana, eta azkena ere izango da, oso gogorra iruditu zitzaidan-eta.

Luis Mari: Bai, oso gogorra izan zen. Horrelako hainbat probatan parte hartu izan dut, eta domekakoa oso gogorra izan zen. Hori gutxi izango balitz, proba beranduegi hasi zen.

Biok ondo baino hobeto ibili zineten. Uste baino hobeto?

Leire: Nire helburua ez zen podiumera igotzea, ezta gutxiago ere. Proba zortzi ordu baino gutxiagoan amaitzea zen nire helburua, eta helburu hori lortu egin nuen. Horrez gain, hirugarrena izan naiz, eta gustura nago.

Luis Mari: Proba hori berria da, eta erreferentziarik ez neukan ez nuen helburu finkorik. Proba ondo amaitu nuen, eta gustura nago.

Ze ezberdintasun dago mendira paseatzera joatearen edo lehiatzera joatearen artean?

Luis Mari: Oso bestelakoak dira. Lehiaketetan erlojuaren mende egon behar da, eta denbora hobetzea izaten da helburua. Familiarekin lasaiago joaten naiz mendira, noizean behin txipa aldatu egin behar da-eta.

Leire: Gauza guztiz desberdinak dira. Are gehiago, mendira joatean mendiaz gozatzea izaten da helburua eta horrelako lehiaketetan, gozatu baino gehia-



XABIER URZELAI

"Aizkorriko Mendi Maratoia gogorra izan zen. Horrez gain, beranduegi hasi zen"

"Mendiaz gozatzea gustatzen zait niri; lehiaketetan, gozatu baino gehiago, sufritu egiten da"

"Ez dut entrenamendu berezirik egiten. Ahal dudanean mendira joaten naiz"

go, sufritu egiten da. Horregatik uste dut ez dudala horrelako lehiaketa gehiagorik egingo.

Noiztik horrelako probatan parte hartzen?

Luis Mari: Soldadutzatik eroritakoan egin nuen lehenengo maratoia, eta ordutik hona hainbat mendi-ibilaldi, herri kros eta maratoitan izan naiz. Donostiako Maratoia izaten da gusturen egiten dudana proba.

Leire: Betidanik gustatu izan zait mendia, baina lehiaketetan orain dela gutxi hasi nintzen. Lehenengo triatloia orain dela lau urte egin nuen, eta ordutik hona duatloia eta triatloiren bat egiten izan dut.

Entrenamendu berezirik egiten duzue?

Leire: Ez. Asteburuak mendira joateko aprobetxatzen ditut. Pirinio aldera askotan joaten naiz. Horrez gain, korrika apur bat ere egiten dut, baina entrenamendu berezirik ez dut egiten.

Luis Mari: Ez. Astean barrena, ahal dudanean, mendira joaten naiz. Asteburuetan entrenamendu gogorragoak egiten ditut, denbora luzeagoan ibiltzen naiz mendian, baina ez dut entrenamendu berezirik egiten.

Zer jaten duzuen zaintzen duzue?

Luis Mari: Ez bereziki. Etxean garbi jaten dugu, denetik, baina ez dut ezer berezirik jaten. Bitaminaren bat edo beste hartzen dut, baina besterik ez.

Leire: Ez. Etxean denetarik jan izan dugu beti, eta ez naiz begira egoten zer jaten dudana eta zer ez.

Leire, nondik datorkizue zuri eta anaiari kirolarekiko zaletasun hori?

Ez dakit. Baserrietan bizi garenok mendiarekin harreman zorrotzagoa daukagula esango nuke. Ez dakit kirolzaleagoak izango garen, baina mendira gehiagotan joaten gara uste dut. Kasualitatea izango da, baina emakumezkoetan lehena izan dena ere, Rosa Lasagabaster, Eskoriatzako baserri batekoa da.

Luis Mari, datorren astean Galarleizeko Mendi Maratoian izango zara... Dena gertu?

Baietz espero dut, nahiz eta bi astean behin mendi maratoi bat egitea askotxo den.

Hona hemen Merkealdiak

Garibai Etorbidea, 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

'FLYSURF'-A

'Flysurf'-a: haizea lagun, lur gainean edo ur gainean surfa egiteko aukera

Surfaren ondoren, taula gaineko kirol asko ikusi ditugu; 'snowboard'-a, adibidez. 'Flysurf'-ean, berriz, elurra beharrean haizea behar da

XABIER URZELAI

Diotenez, hawaiiarrek asmatu zuten surfa. Gero, Kalifornian eta Australian egin zen kirol hori ospetsu. Orduetik hona denbora asko pasatu da, eta gaur egun, kirol hori oinarritzat hartuta, hainbat kirol mota dago. Azkenetarikoa 'flysurf'-a da, baina olatuak beharrean haizea behar da.

Flysurf-a 1997an egin zen ezagun Espainian, baina Euskal Herrian ez da oso kirol ezaguna. Zarauzko, Lekeitioko eta beste hainbat hondartzatan, noiz edo noiz, jendea flysurf-a egiten ikusteko aukera izaten da, baina oso gaitza da ibarrean, eta are gehiago Arrasaten, kirol hori praktikatzen duenik aurkitzea. Oso gaitza bai, baina ez ezinezkoa; izan ere, Pedro Olmo mondragoetarra da, eta hark ondo baino hobeto daki zer den flysurf-a.

Pedro joan den urtean hasi zen kirol hori egiten. Oporretan Cadizera joateko aukera izan zuen, eta Tarifan txundituta geratu zen kirol horrekin. Bi aldiz pentsatu barik, ikastaro bat egin eta ekipo osoa erostea erabaki zuen. Tarifako hondartzak oso aproposak dira kirol hori egiteko, baina hemen, Euskal Herrian, gauzak bestelakoak dira.

Pedrok snowboard taularen gainean igaro du negua, eta orain ere, uztailean, elurretan dago, Alpetan, hain zuzen. Uda partean, ordea, elurra areagatik ordezkatuko du, Tarifa aldera joateko asmoa du-eta mondragoetarrak. Udan, hortaz, taula gainean jarraituko du, baina beste kirol mota bat eginez, flysurf-a.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Flysurf-a oso kirol erakargarria da, baina hainbat puntu kontuan hartzen ez badira, arriskutsua izan daiteke bai kirola egiten duenarentzako baita inguruan daudenentzako ere. Gauzak pausoz pausoz egin behar dira. Uretara sartu aurretik, kometa behar den moduan gobernatu behar da.



XABIER URZELAI


'Flysurf'-a arriskutsua izan ez dadin, kometa behar bezala gobernatzea beharrezko baldintza da.

Hondartza bakartietan egitea komeni da, baina inoiz ez bakarrik, badaezpada ere

Horrez gain, haizeak nondik eta zelan jotzen duen ere kontuan hartu behar da. Haize bortitz eta aldakorrek ez dira batera gomendagarriak. Albotik jotzen duen haizea da onena, hura da-eta seguruena. Hondartza bakartiak dira aproposenak, jende asko dago-

Tarifako eta Landetako hondartzak oso aproposak dira 'flysurf'-a egiteko

en lekuan flysurf-a egitea arriskutsua izan daiteke-eta. Ekipoa nahiko garestia da. Neurri askotariko kometak daude, eta jakina, hainbat prezioetakoak ere bai. Horrez gain, taula, kaskoa, trajea eta arnesak ere beharrezkoak dira. 1.200 euro bai, gutxienez.



XABIER URZELAI

Landako haizea ez da gomendagarriena, menditik datorren haizea da-eta.

Urrezko hamar arauak

- 1.- Kirol horrek dauzkan arriskuak zeintzuk diren jakin.
- 2.- Kometa gobernatzeko, heldulekuak segurtasunezko sistema bi izan ditzala.
- 3.- Hondartza bakartietan ibili, eta haizea mota egokia dela ziurtatu.
- 4.- Hegaldia hasi aurretik, materialari gainbegiratu eman, eta dena behar den moduan dagoela ziurtatu.
- 5.- Hegaldia hasi aurretik haizearen indarra zenbatekoa den neurtu, eta kome-

- ta probatu.
- 6.- Haize egonkorrarekin ibili, eta koka-pen egokia izan.
- 7.- Kaskoa, txalekoa, arnesa eta traje aproposa erabili.
- 8.- Taulako lokarria uretara sartu aurretik eta irten ondoren azkar askatu.
- 9.- Bakarrik ez ibili. Hobe lagunekin ibiltzea, badaezpada ere.
- 10.- Emergentsia planen bat gertu izan, ezer gertatuta ere...

ELKARRIZKETA

SAIOA IBÁÑEZ/'MOVER'A

“Nire energia guztia beste era sortzaile baten plazaratu gura nuen”

ARRASATE IRRATIA

Saioak bere burua dantzaritzat baino gehiago, *mover*-tzat dauka. Zazpi urte igaro ditu Bartzelonan eta Amsterdamen dantza ikasten, eta uztailaren Gaur Egungo Dantzako ikastaroko irakasle izango du.

Zenbat denbora daramazu Amsterdamen?

Dagoeneko hiru urte daramatzat Amsterdamen.

Eta Amsterdamera joateko aitzakia, besteak beste, dantza izan zen, ezta?

Bai. Amsterdango School For New Dance Development eskolara joan nintzen. Eskola horretan hainbat lurraldetako ikasleak daude, baita arkitekto, aktore eta dena delakoak ere. Edozein joan daiteke eskola hartara bere dantza edo beste dantza modu batzuk aurkitzera.

Aurretik ez dira izugarriko dantza ikasketak eduki behar?

Ez, gainera, Amsterdango eskolak aukera asko ematen ditu. Eskolako instalazioak *performance*-ak eta koreografiak egiteko ere oso aproposak dira.

Dantzan, gutxi gorabehera, duela zazpi urte hasi zinen... Ordura arte dantzaren munduarekin loturarik zenuen?

Ordura arte, oso gutxi. Arrasaten, udan, apur bat egiten genuen... hilabete baten eta zapatueta bakarrik. Lau egun urtean, besterik ez. Horregatik erabaki nuen kanpora joatea, Bartzelonara, Arrasaten beste aukerarik ez neukalako. Bartzelonan hiru urte egin nituen.

Eta Bartzelonan hurbildu zinen dantzara?

Bai, hori gura nuen. Ordura arte beti kirola egiten ibiltzen nintzen, eta halako baten, indar eta energia guzti hori beste era sortzaile baten plazaratu gura nuen. Horregatik joan nintzen Bartzelonara, dantza eta mugimendua zer zen ikustera.

Eta, gero, handik salto egin zenuen Bruselara?

Bai. Bartzelonan hiru urte egin ondoren, han egoteko denbora nahikoa zela iruditu zitzaidan eta aldaketatxo bat egitea erabaki nuen, beste gauza batzuk ikusi... Koreografo bat ezagutu nuen, hark urte bateko programa bat aurkezten zuen. Lagun bat eta biok animatu eta hara joatea erabaki genuen. Hortik, Bruselatik, Amsterdam oso gertu dagoenez eta School For New Dance Development izen handiko eskola denez, eskola horretan sartzen saiatu nintzen. Horrelako gauzak



IKER BARANDIARAN

“Edozeinek, mugitzen denean, dantza egiten du; beraz, denok gara dantzariak”

egitea zaila da, ikasketak oso garestiak dira... Eta eskola horrek baldintza oso onak betetzen ditu, leku onean dagoelako eta gainera ikasteko eta lan egiteko aukera handiak ematen dituelako.

Zuk eskola horretan sartzea lortu zenuen eta ia lizentziatua zaitugu...

Ez naiz guztiz graduatu oraindik, idatzizko lan bat aurkeztea falta zait. Bestela, eskola guztiak bukatuta daukat.

Eta eskola horretan, zer ikasi duzu?

Dantza egiten ikasteaz gain, zuzentzen erakutsi didate: argiak kontrolatzen jakin behar duzu, baita musika, konposizioa, inprobisazioa, hainbat teknika... Horrez gain, Oso jende interesgarriak ematen ditu eskolak. Hori da garrantzitsuena, hara joaten diren maisuak, orokorrean, oso onak direla...

Beraz, zuk eskolari fruitua

“Zazpi urte kanpoan ikasten ibili ondoren, apur bat lasaitzeko gogoa daukat”

edo etekina atera diozu...

Bai, han ikastea oso ondo egon da, nahiz eta batzutan oso gogorra izan den.

Eta, Amsterdam, bizi izateko, zer moduz?

Egia esanda, lehenengo urtean oso isolatuta egon nintzen... eskolara joaten nintzen eta ezer gutxi gehiago, horretara nengoen. Gero, beranduago, hobeto. Bestela, hiria oso polita da eta oso gustura egon naiz; beti bizikletan leku batetik bestera...

Eta orain, Saioa non kokatuko da? Arrasaten?

Bada, orain da momentua zazpi urte jarraian kanpoan pasatu eta mordoia ikasten ibili ondoren apur bat lasaitzeko gogoa daukadana.

Oraindik ez dakit ziur zer egingo dudana. Duela gutxi Euskal Koreografoen Erakustaldia ekimena bukatu dut. Agian ekimen horretako azkenengo lana

“Hurrengo lana bakarka egin gura dut, nire bakarkako lanean gehiago oinarritzeko”

bakarka egingo dut, nire bakarkako lanean gehiago oinarritzeko eta lanean lasaiago egiteko. Hori, behintzat, irailera arte. Ondoren, uste dut beste nonbaitera joango naizela, baina ikusi behar...

Duela gutxi, Euskal Koreografoen Erakustaldian izan zinen. Parte hartu duzun lehenengo aldia izan da?

Aurtengoa nire izenarekin parte hartu dudana lehenengo aldia izan da. Aurreneko urteetan bi koreograforekin dantzari moduan joan naiz. Aurten nire bakarkako lana eta ideia erakutsi gura nuen, *Ihes puntuak* ize-nekoa.

Eta zer da Ihes puntuak, zer dantza, lan mota da?

Era simple baten, nik dantza aurkitzean zerk mugitu ninduen eta zein oinarri fisiko zuen azaldu gura nuen. Barru-barrutik aterako mugimendua...

KULTURAPILULAK

Anger musika taldeak CDa kaleratuko du

Musakolako Anger musika taldeak CDa kaleratuko du datorren egubakoitzean. Hain zuzen ere, *Gara* egunkariko *Gaztealgara* gehigarriak kaleratuko du Musakolakoan lan berria.

Gaztealgara-k Euskal Herriko bederatzi musika talde aukeratu eta bakoitzari CD bana kaleratuko dio. Egubakoitzero talde baten lana salgai jarriko du, eta datorren egubakoitzean, uztailaren 19an, Anger taldearen *Jarraitzen dugun itzala* lana kalean izango da.

CD horrek lau kantu ditu, guztiak berriak, eta *Gara* egunkariarekin batera salduko dute, egunkariaren salneurria gehi 1,95 euro ordainduta. Aukera polita, hortaz!

Bad F-Line musika taldeak laugarren diskoa kaleratu du

Arrasateko Bad F-Line musika talde industrialak laugarren diskoa kaleratu berri du. Aurreko beste bi diskoak bezalaxe, hori ere Madrilgo Desobediencia diskoetxearekin atera dute. Era berean, taldekoek ohitura duten moduan, diskoari izena jarri beharrean, kolore batekin bereiztu gura izan dute. Azkena gorria da, eta hamar kantu berri ditu. Laster, elkarrizketa egingo diegu.

Kanebo

INTERNATIONAL

**MIREN ARRIETA
PERFUMERIAN**

Zure larruazaleko edertasun ezkutua topatzen lagunduko dizugu

Uztailaren
15etik 19ra
PROMOZIOA
KANEBO
produktuak
erosteagatik
oparia jasoko
duzu*

Bisita gaitzazu Arrasaten
Zerkaosteta kalea 12
Tel.: 943 79 00 35

* Izakinak bukatu arte.

Eguaztenean, Lore Gazteak taldeak euskal dantzak eramango ditu Monterronera

IKER BARANDIARAN

Lore Gazteak dantza taldeak euskal dantza jaialdia antolatu du datorren eguaztenean, 22:30ean, Arrasateko Monterongo parkean. Jaialdi horrekin, Lore Gazteak taldeak azken urteotako ohiturari jarraituko dio.

Arrasateko Lore Gazteak dantza taldeak hainbat urte darabatzatza, uztailan, Monterongo parkean euskal dantza jaialdiak antolatzen. Eta aurten ere ez dute hutsik egin. 22:30etik aurrera, eta hiru euroren truke, jaialdi polita ikusi ahal izango da Monterronen. Gazte txartela edo dantzako federatu txartela edukiz gero, bi euro bakarrik ordaindu beharko da.

Aurtengo ekitaldiak izango dituen berritasunen artean honako hau nabarmendu digute Lore Gazteak taldeko arduradunek: Monterongo aurtengo ekitaldiko saio nagusia Otsagabiako hainbat dantzatan oinarrituko dute. Horrez gainera, Bizkaiko eta Gipuzkoako dantzak eta umeen dantzak ere ikusgai izango dira. Bestalde, aurtengo ikuskizunaren egitura aurreko urteen antzekoa

izango dela azpimarratu digute antolatzaileek.

Izan ere, urtero uztailan egin ohi duten jaialdi hori Lore Gazteak taldekoek ikasturtean ikasitakoaren emaitza izan ohi da. Ikasitakoa erakutsi eta dantza egiten hobeto ikasteko motibazioa, hain zuzen ere.

Urtero, Monterronen, ikusle asko batzen dira Lore Gazteak taldearen jaialdia ikusteko. Ikasleek gurasoez gainera, hainbat eta hainbat arrasatearrek gustura gozatzen dute euskal dantzen ikuskizunaz, gau goxoa zein lanbroa egin. Are gehiago, urtean barrena Lore Gazteak taldearen ikuskizun gutxi ikusteko aukera egoten da, eta ondo aprobetxatzen dute herritarrek.

Jaialdian lagun askok hartuko dute parte: hogeita bost neska-mutilek, berrogei bat umek, zazpi bat txistularik eta gaitarik, den-denak herrikoak, arrasatearrak.

Jaialdi horren ondoren, Lore Gazteak taldeko ikasleek iraileira arte atsedean hartuko dute. Zuk zeuk hurrengo ikasturtean, irailetik aurrera, euskal dantza ikasteko aukerarik izanez gero, ize-na eman ahal izango duzu.



Lore Gazteak dantza taldeak, urtean barrena, herriko hainbat ekitalditan parte hartzen du.

ARTXIBOA



Ospatu gurekin
10.
urtebetetzea

Parte hartu
600 €
hileroko zozketan.
(Maiatzetik uztailera)

Sari-txartelak Ibai-arte
komertzioan aurkituko dituzu

ibai-arte

E, TXO!

GAZTETXEA ATZO ITXI ZUTEN

Ospitale zaharreko gaztetxea aurreko astean itxiko zutela iragarri bagenizuen ere, atzo, eguena, izan zen gaztetxearen azkeneko eguna. Astean, gazteak euren gauzak batzen ibili dira eta atzo, Udaleko brigadaren laguntzarekin gauza horiek guztiak biltegi batera eraman behar zituzten. Hau idazteko orduan oraindik egin barik zegoen, baina horrela egingo zutela jakinarazi ziguten. Datozen asteotan, gazteak biltzeko behin-behineko lokalei buruz berba egingo dizuegu.

GAUEKO AUTOBUSA, EGUBAKOITZEAN ERE BAI

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta PESA garraio enpresak jakinarazi dutenez, sasoi honetan eta irailla erdialdera arte, zapatuez gain, egubakoitzetan ere gaueko autobusa ibiliko da. Hortaz, egubakoitzetan eta zapatuetan, 00:00etatik 06:00ak arte, Eibar eta Eskoriatza arteko herrietan dauden ohiko geltokietatik, 90 minutuan behin, autobus bana igaroko da. Era berean, ekimen horren bultzatzaileek orain arte jasotako erantzunaren balorazio baikorra egin dute. Irailek erdialdetik aurrera, ordea, egubakoitzetako autobusak kendu eta zapatuetakoek bakarrik segituko dute.

GAZTETXEOAK, MAULEKO JAIETARA

Gaur, egubakoitza, gaztetxeko hainbat lagun Mauleko jaietara joango dira. Arrasateko gaztetxe-koek eta Mauleko gaztetxe-koek elkartrukea egin dute. Arrasateko 15 bat lagunek eman dute izena. Gero, Maulekoak Arrasatera etorriko dira. Harrera ona egin beharko diete!

GUREGAIK/ LITXARRERIAK

Gazteak litxarrereriak jateko ohiturak aldatzen dabilta

ZURIÑE VÉLEZ DE MENDIZABAL

Gazteek litxarrereriak jateko zaletasuna dute, nahiz eta goserik ez eduki. Kontua kontsumitzea da, eta ondoren, nagusiagoak egiterakoan, horietako askok ohitura aldatu eta tabernetara joko dute.


Duela hogeitaz urteko gazteen ohiturak desberdinak ziren gaur egun dituztenekin alderatuta. Garai haietan, gazteek arratsaldeak igarotzeko pipitak erosten zituzten, kalean eseri eta berba eginez denbora pasatzen utzi. Gaur egun, litxarrereriak dendak edozein kale-kantoitan aurki daitezke. Horietan pipitak bakarrik ez, mila kolore, forma eta zaporedun produktuak saltzen dituz-

Egun, pipitak soilik ez, mila kolore, forma eta zaporedun produktuak saltzen dituzte

te, eskaerari erantzunez. Gazte jendeak horiek jaten dituen tabernetan sartzen diren arte, nahiz eta gozokiak jateko ohiturarik ez den galtzen bizitzan zehar.

OHITURA BERRIAK

Hamahiru-hamalau urte bitartean hasten da jendea tabernetan



Era eta kolore guztietako litxarrereriak aurki daitezke dendetan.

sartzen. Aurreko urteotako denbora-pasa, kaleko banku baten eseri eta arratsaldeak igarotzea,

bigarren mailan geratzen da, eta aurrezten den dirua, esaterako, eguneko kaferako utzi.

LOTSABARIK/ Irati Gallastegi

“Arrostaitzi lehentasuna ematen diot”

ZURIÑE VÉLEZ DE MENDIZABAL

Euskal dantzak atsegin ditu Iratik, baina azkenaldian autoko testak egiten arduratuta ari dela dio. Hala ere, lotsa txikiko eta umorea galtzen ez duen neska dela frogatu digu elkarriketan.

• Txikitana, zer izan gura zenuen?

Ezer zehatzik ez. Beti zalan-tzan egon naiz azken momentura arte. Osasunarekin zerikusia zuen zerbaitean egin gura nuen lan, farmazian, edo sendagile. Orain, Okupaziozko Terapia egin gura dut.

• Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Nire gustuko lanean, ezkon-duta ez, baina aldamenean norbait dudala. Familia izan gura nuke, eta Arrasaten bizi izan.

• Zein da, zure iritziz, adin ideala?

Hamazazpi edo hamazortzi urte, ardura gutxi izaten da-eta adin horretan.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Lagunei, familiari eta Arrostaitz dantza taldeari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Zaragozara noa ikastera, eta gaztelaniaz zelan moldatuko naizen arduratzen nau.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza gutxi. Esaterako, jendea ezagutzeko orduan, lehenengo harremanak. Gero, konfiantza hartzen dut.

• Zure bertute bat? Eta alde txar bat?

Besteek esan beharko lukete hori. Alde txarra, une batzuetan ez dakidala behar bezala jokatzeko.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak eta belarriak: begi argiek bizitasuna ematen diote nire aurpegi xelebreari; eta belarriak, biak berdina ditudalako.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Ipurdiari lehenengo, eta izateko erari ondoren.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoa amaituta • ZALETASUNAK: Dantza eta barre egitea
LIBURU BAT: 'La hija del curandero' • FILM BAT: 'Seven' • MUSIKA TALDEA: Versus • KIROL TALDEA: Euskal Selektzioa

INMO f3
inmobiliaria



INMO f3
inmobiliaria

Erdiko kalea 26.
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 79

- Etxebizitzaren salerosketarako sare garrantzitsu bat gara.
- Gipuzkoan 14 zentro elkar lanean.
- Etor zaitez gu ezagutzera. Eskerrik asko.

Ireki berria Arrasaten!

BEHEKOPELUKERRIXATIK

Oskar Valor

KINGS PELUKERIXAKUE

ZURIÑE VÉLEZ DE MENDIZABAL

Oskar bergararra dan arren, Mondraguen egitten dau lan. Oin dala hiru urte ezkerro, Zarugalde kalien gizonendako pelukerixie dauko, eta gustora ei dago bezeruekin. Aurten gehixen eskatu dutziena metxak izan diela esan dusku, eta uda partien bezero gehixenek ulie ebakitten ei daue.

Amets bat?
Ondo bizi izetie.
Eta amets txar bat?
Gaixoketie.
Egin dozun azken biajie?
Extremadurara, aurreko Aste Santuan.
Txartel horixe zeñiei?
Politikuei.
Eta gorrixie?
Hori be politikuei erakutsiko neuskie.
Pelikula bat? Liburu bat?
Disko bat?
Platoon / El médico, Noah Gordon-ena / St. Germain.

Drogak legalizauko zittukie?
Batzuk bai.
Eta prostituziñue?
Normalizauko neuke, bai.
Ze dauketzu sobran?
Kiluek, baiñe ez dirutan.
Eta faltan?
Gauza askorik ez, baiñe iguel opor gehixago.
Tabernetako txikiteue ala diskotekak?
Bixek. Bateragarrixek diela ueste dot.
Etxeko zapatillek ala zapat-ak?
Bixek gustora ibiltten dittut.
Ze gustetan jatzu Mondraguetik?
Neu Bergarakue naz, eta jeneralien dana gustetan jat.
Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?
Aparakaleku gehixago jarriko neuke.
Eta lehendakari izango bazitze, ze hobetuko zeunke?
Ez dakit ze egingo neuken kargu hori eukitte.
Bizio bat?



“Ule motza mosura ondo geraketako, norberak buru politte eukittie da biherrezkue”

Daukoten haundixena erretie da.
Mendi bat?
Urbixa.
Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?
Gasteizera.
Ezagutzen dozun pertsona interesante bat?
Neskalagune.
Eta ezagutu nahiko zeunkiena?
Llongueras, esate baterako.
Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?
Ez nitzake iñokin be tranpetan ibilliko.
Telebisiñoko programa bat?
Dokumentalak.

“Mondraguetarrak hiriburukuek baiño kontserbadoriaguek die, baiñe gauzie aldaketan dabil”

Eta irratikue?
Anda ya, 40 Principales irratikue.
Zertan gastauko zeunke dirue gustora?
Lehenengo euki egin biher da, baiñe ondo bizi izeten.
Ze dala eta Kings?
Aurretik euen jarritte.
Hiriburuetan orrazkera berezixek ikusten die. Mondraguen jentie animetan da?
Oin gehixago ikusten die, baiñe nahiko kontserbadoriek gare mondraguetarrok.
Txutxumutxu asko entzuten dozu?
Bai. Gehixenbat, automobillen, nesken eta motorren gaiñien.

NIREBIDAIAHURA/ Aritz Murgia

Korsika / 2002ko Aste Santuan

Aste Santuan, Arrasaten ikasten ibili den ingeniari talde batek Korsikarako bidea hartu zuen, ikasketak burutik kentzeko asmotan. Ondo irabazitako deskantsu bila abiatu ziren uharte hartara, eta, gainera, bazegoen zer ospatu: Industria Ingeniaritzako titulua, hain zuzen ere.

Aritz mondragoetarra da, eta Aritzen eskolakideak Euskal Herriko hainbat herritakoak dira. Guztira, 15 lagunek hartu zuten hegazkina, martxoaren 31n. Korsikan bungalowetan izan ziren hamabost lagunak, hondartzatik gertu baino gertuago. Korsika behar bezala ikusteko, gazteok lau automobil errentan hartu eta uhartean gora eta behera ibili ziren: “Korsikako errepideak ez daude oso ondo. Gidatzea atsegin duenak bikain pasatzen du, baina egia esan, lasai gidatzeko ez dira errepide osoak. Ordu asko egin genituen automobiletan, uhartea goitik behera ikusi gura genuen-eta”.



“Korsikako errepideak ez daude ondo, baina uhartea goitik behera ikusi genuen”

Hamabost lagun horiek Porto, Bonifacio, Palonbaggia eta beste hainbat herri bisitatzeko aukera izan zuten. Korsikak berezitasun asko ditu, baina aipagarrienak uharteak dituen parajeak ei dira. Postaletan azaltzen diren hondartza ederak, amildegiak, basoak, mendi-tontorrek, herriak... Hondartzan egotetik elurra ikustera, aukera ugari eskaintzen ditu Korsikak. Lagun talde batek, iparraldea ikusteko asmotan, egun baten hondartzan egin zuten lo. Besteek gau hartan parranda ederra egin zuten. Inork ez zuen aspertzeko astirik izan.

Parranda gaua, hala ere, garesti irten zitzaien lau laguni. Diskoteka batetik irten, eta konturatu orduko korsikar batzuekin iskanbila ederra izan zuten. Hori izan zen, Aritzen esanetan, soberan egon zen gauza bakarra, gainerako guztia ederra izan zen-eta. Argi geratu zen eskolatik kanpo hamabost lagunak bikain moldatzen direla; ikasketak amaitu dituzte, baina oso harreman estua daukate. Hori bai, Korsika ez ei da batera merkea!

XABIER URZELAI



Korsikan, besteak beste, urpekaritza egiteko aukera izan zuten.



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak
Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

gorka ilepaindegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate

943 77 13 78

Gorka ilepaindegia



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

ZAHARRAREN ETXETIK



ARTXIBOA

Santa Marinako jaietan egongo da zer egin eta zer ikusi, eta zapatuan, erretiratuak protagonistak izango dira.

Toki Argikoak buru-belarri sartuko dira Santa Marinako jaietan

IKER BARANDIARAN

Santa Marina auzoko Toki Argi erretiratuen elkartekoek egitarau polita antolatu dute asteburu honetarako, auzoko jaietarako. Izan ere, Santa Marina auzoko jaiak geroago eta giro hobea izaten dute eta, seguruenik, Toki Argi elkartekoek antolatzen dituzten ekintzek ere izan dute horretan zeresanik.

Azken hamabi-hamahiru urteetan Toki Argi elkartekoek auzoko erretiratuendako bazkariak antolatu izan dituzte, eta bazkari horrek, urtero, oso parte hartze ona izaten du. Horren adibide dugu aurten berrehun eta hogeitau bat erretiratutako bazkaltzeko izena eman izana. Bazkaria zapatuan izango da, Mesedetako Andra Maria Eskolan. Aurretik, 13:00etan, eskola berean, gura duten erretiratu guztiak euren omenezko meza izango dute. Eta horren ondoren, berriketalditxo batzuk egin ostean, bazkaltzen hasiko dira. Toki Argi elkarteko presidente Manu Uriar-

tek azaldutakoaren arabera, 220 bat erretiratu joango dira bazkaltzera. Bazkalostean, auzoko bi lagun nagusienei omenalditxo egin eta opariak emango dizkiete. Gero, bazkariko erretiratu guztien artean hainbat opari zozkatuko dituzte. Horien artean, Toki Argi elkarteko txangoeta-

Apirilean, Fatimara!

Toki Argi elkartekoak egungo ekintzekin buru-belarri badabilta ere, apirilean Fatimara joateko txangoa prestatzen dabilta. Apirilaren 7tik 13ra joango dira eta irailerako txangoa guztiz zehaztuta eduki gura dute.

Toki Argi elkartekoek lehentasuna izango dute, eta, gero, gainerako erretiratuek ere izena eman ahal izango dute.

rako txartelak. Emozio horien guztien ondoren, dantzaldia izango dute.

ESKULANEN ERAKUSKETA

Santa Marinako erretiratuen jaietako egun handiena bihar, zapatua, izango den arren, Toki Argi elkartekoek beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte.

Gaur bertan zabalduko dute ikasturtean Toki Argi ikastaroetan egindako eskulanen erakusketa. Erakusketa horren bitartez, aurtengo eskulan ikastaroak bukatutzat eman eta lan horien egileek euren eskulanak erakusgai jarriko dituzte.

Toki Argi presidente Manu Uriartek kontatu digunez, erakusketa hori gaur bertan, 18:00etan, zabalduko dute, eta bihar eta etzi ere ikusgai egongo da, goizez eta arratsalde, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Erakusketa horretan aurki daitezkeen lanen artean, eraberritutako altzairuak, lanparak, bainiak, kafe-ehogailuak eta oihalezko eskulan ugari daude, besteak beste.

LABUR

Uztailaren 15ean, Abaroakoek Kantabriara eta Burgosera txangoa antolatu dute

Abaroakoek uztailearen 15ean Kantabriara eta Burgosera irteera antolatu dute. Laredon geldialditxo egingo dute eta Santa Maria de la Asunción eliza bisitatuko dute. Bazkaria Villarcayo herriko Plati jatetxean egingo dute, eta bueltan, Frias herria bisitatuko dute. Autobus bi alokatu dituzte. Izenematea astelehenean, uztailearen 8an, bukatuko da eta 18 euro ordaindu beharko dira.

Uztailaren 20an, Toki Argi elkartekoek Larrunera txangoa antolatu dute


Aurten ere Toki Argi elkartekoek Larrunera txangoa antolatu dute. Uztailearen 20an joango dira, eta Larrunera igotzeaz gain, Beran bazkalduko dute. Handik bueltan, berriz, Hondarriraino joko dute eta bisita egingo diote herri horri. Interesatuek hemeretzi euro ordaindu beharko dute, eta uztailearen 15aren aurretik Toki Argi elkartean bertan izena eman beharko dute.

ZAHARRAHOTIK

Carmen Uribetxeberria

ERRETIRATUA, BAINA GELDIEZINA

Carmen Uribetxeberria Tolosan jaio eta Bergaran hazi zen. Hogeitau urte daramatza Arrasaten, eta ez da geldi egotekoa, ez horixe.



Zure burua bergarartzat daukazu?

Tolosan jaio nintzen, baina oso txikitik Bergarara joan ginen. Bergaran ezkondu eta 1981ean Arrasatera bizi izatera etorri nintzen, baina dagoeneko arrasatearra naiz.

Gaztetxotan ikasle ona zinen?

Sei urterekin Mariaren Lagundira ikastera joan nintzen. Ikasle nahiko txarra nintzen, ez nuelako gustuko eskolara joatea ezta ikastea ere. 14 urte egin arte ibili nintzen ikasten, baina ez nuen askorik ikasi, oso nagia nintzen.

Ikasteaz aspertu eta lanean hasi zinen?

Bai, Mariaren Lagunditik irten bezain laster, Bergarako Movillas enpresan lanean hasi nintzen, oihalak egiteko hariak hodietan sartzen. Hamasei urte egin nituenean, Movillas utzi eta osaba gozo-

gile bati laguntzera joan nintzen, Bilbora. Sei bat hilabete pasatu nituen Lamana kalean erroskilak saltzen. Handik bueltan, Bergarako Cotones enpresan kotoia garbitzen urte eta erdi pasatu nuen.

Tartean, ezkondu eta alargun geratu zinen, ezta?

Bai, 18 urterekin ezkondu eta bost seme-alaba eduki nituen. Ezkondu eta bederatzitau urtera, alargun gelditu nintzen. 1981ean, alaba batek Arrasatera etortzeko esan zidan, eta hemen nago orduz gero. Azken urteetan, erretiratuen danborrada konpainia sortu guran nabil.

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

MADINA ZURAK
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78

**CLUB
IYOLA**

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

 <p>ARRASATE Nekane eta Xabi 13an eta 11n, urtebetetzea. Zorionak! Lagunak.</p>	 <p>ARRASATE Zihorze Artetxe 14an, 9 urte. Zorionak! Familiakoak.</p>	 <p>ARRASATE Jose M. Astigarraga 10ean, urtebetetzea. Zorionak!</p>	 <p>ARRASATE Iñaki Gurrutxaga 11n, urtebetetzea. Zorionak! Hark dakien 2 lagun-en partetik, bihotzez.</p>	 <p>ARRASATE Odei Sierra 13an, 2 urte. Urte askotarako! Aitaita-amama eta gurasoak.</p>	 <p>ARRASATE Ander Durañona 9an, 17 urte. Zorionak! Etxekoak.</p>	 <p>ARRASATE Yune Bautista 13an, 17 urte. Zorionak! Familiakoak.</p>	
 <p>ARRASATE Ibai Bolinaga 13an, 11 urte. Urte askotarako! Aita eta ama.</p>	 <p>GARAGARTZA Iñigo Gainzarain 11n, 34 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.</p>	 <p>ARRASATE Itsaso Errasti 12an, 31 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.</p>	 <p>ARETXABALETA Amaia Zubia 9an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat, etxe-ko guztien partetik.</p>	 <p>ARRASATE Nagore Iria Ekainaren 27an, 28 urte. Urte askotarako! Txusti eta Bixenta.</p>	 <p>ARRASATE Nekane López 13an, 28 urte. Urte askotarako! Familia eta lagunak.</p>	 <p>ARRASATE Aitana Gómez 15ean, 4 urte. Urte askotarako! Etxekoak.</p>	 <p>ARRASATE Paula Iregi 12an, 6 urte. Urte askotarako! Joseba, aitatxo eta amatxo.</p>
 <p>ARRASATE Xabier Balerdi 16an, 24 urte. Zorionak, Baler! TMT.</p>	 <p>ARRASATE Ane Garro 15ean, 23 urte. Zorionak, Ane! TMT.</p>	 <p>ARAMAIO Markel Arriolabengoa 2an, 12 urte. Zorionak, Markel! Etxekoak.</p>	 <p>ARAMAIO Gerardo Nuñez 12an, urtebetetzea. Zorionak, Gerar!</p>				

Adi!

Hurrengo zenbakian, uztailaren 13tik 19ra bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku! Otalora lizentziaduna, 31.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko uztailaren 12a / 33. zenbakia

KOORDINATZAILA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com


Sabin Salaberriaren kantutegi berria Aramaion

UBANE MADERA

Bihar, 12:30ean, Sabin Salaberri aramaioarraren kantutegi berria aurkeztuko dute Aramaioko kultura etxean. Besteak beste, han izango dira Sabin bera eta Udaleko ordezkariak.

Eurekin batera, Garikoitz Knörr abeslaria ere izango da. Izan ere, Sabin Salaberriak adierazi digunez, asmoa da bere kantutegiko kantu batzuk Garikoitz Knörrrek abestea eta beste batzuk herritarren artean abestea.

Aurten, martxoan, atera zuen Sabin Salaberriak kantutegi berria. Hark esan digun moduan, antzinako kantuak dira, "geroago eta gutxiago abesten dira eta horiek bultzatzeko erabaki genuen kantutegia ateratzea". Horrekin batera, Aramaioko musikariak adierazi digunez, Araban euskaldun-berri asko dagoela eta, kontuan hartuta kantuak oso erabilgarri direla hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko, haiei laguntzeko ere atera dute kantutegia. Arabako Foru Aldundiaren bitartez plazaratu dute.




GOITB

Antzinako 50 bat kantu batu ditu Sabin Salaberriak kantutegian.

50 bat abesti batu ditu liburrak, "erdiak egile ezezagunenak dira, baina badaude Iparagirren abestiak, *Agur Jau-nak, Ixil-Ixilik...*". Liburuaren formatua txikia dela ere kontatu digu Sabinekin, "poltsikoan edozein

lekutara eramatekoa: mendira, bazkalosterako...". Gaineratu digunez, arrakasta handia lortu du kantutegiak, ia agortuta dago. Hori dela eta, beste edizio bat ateratzeaz gain, CDa grabatzeko asmoa ere badutela esan digu.



Pozik daude Uda Ikastaroarekin

Aramaioko I. Uda Ikastaroaren helburua bete-betean lortu dute. Hala adierazi digu Henrike Knörrrek, Euskaltzaindiko kideak. Haren esanetan, batez beste, 30 ikaslek parte hartu du egunero eta oso pozik daude parte hartzearekin. Datorren urtean esperientzia errepikatuko dutela adierazi du eta emandako harre-ragatik Aramaioko Udalarari esker ona adierazi gura izan dio.

HERRITARREN HITZA / Rosa Mondragón • Kazetaria

Opor garaian kontuan hartzeko aholkuak

O rain arteko eguraldiak ez digu udaz gozaten gehiegi lagundu, baina tira! udan gaude eta ia urte osoa garai honen zain egoten garenez, luzatu nahi dizuedan aholku nagusia udaz disfrutatzea da.

Aztertu dezagun zergatik disfrutatatu. Abantailak dira nagusi urtaro honetan. Arropa arina eta eroso, eta sandaliak janzten ditugu, neguko jertse lodi eta txamarrak armairuan gordez. Bestalde, urte osoan buruan bueltaka izan ditugun lan ardurak eta ikasgai latz haiek ahazteko momentua iritsi zaigu ikasle zein langile-oi. Eta hori gutxi balitz,

gainera aparteko soldata eskuratzen dugu uztailen, laster hartuko ditugun oporretan ederki asko gastatuko duguna. Eguraldiari dagokionez, teoriarik onaz eta eguzkiak disfrutatzeke garai onena da eta nahiz eta orain arte ez dugun aukera gehiegirik izan, tenporek uztailaren 25etik aurrera eguraldi hobea iragarri dute.

Aholkuekin jarraituz, oporretan osasuna zaintzeko aholkua egiten dizuet. Inoiz ez



"Uztailaren 25etik aurrera eguraldi hobea iragarri dute"

libre ugari izango dugunez, ondo aprobetxatzeko planifikatu beharra dugu: liburu interesgarriren bat eskuratu, aspaldiko lagunekin elkartu, bidai interesgarriren bat egin,

dator gaizki betiko prebentzio aholkuak errepikatzea: ez jan eta ez edan gehiegi, kontuz gidatu, eguzkia hartzen baduzue neurriak hartu norberak duen azalaren arabera, ez egin juerga gehiegi, gastuak zaindu...

Oporretan, bestalde, denbora libre ugari izango dugunez, ondo aprobetxatzeko planifikatu beharra dugu: liburu interesgarriren bat eskuratu, aspaldiko lagunekin elkartu, bidai interesgarriren bat egin,

musika entzun, seme-alabekin jolastu, herriko jaietaz gozatu...

Oporretako bueltan, irailean, pentsatu ere ez dugu nahi, baina beharbada horregatik ematen dira udazken hasieran depresio kasu ugari. Hementxe beraz aholkua: kontziente izan irailean betiko normaltasunera bueltatuko garela. Hala ere, ez zaitezte oporrak hartu orduko geratzen diren opor egunak kontatzen agobiatu, depresioan eroriko zarete eta.

Aholkuak aholku, norberak jakingo du non jarri muga, zeren eta nor ez da noizbait desmadratu?

LABUR

UEUrako dirulaguntza eskatzeko aukera


Udako Euskal Unibertsitate-ra joan gura duenak Udalarari dirulaguntza eskatzeko aukera dauka. Matrikula osoa eta egoitza kostuaren %80 ordainduko dio Udalak. Dirulaguntza eskatzeko, berriz, matrikularen ordainagiria, egitaraua eta parte hartze ziurtagiria aurkeztu behar dira. Irailaren 15era arte dago horretarako.

Udaleko kontuekin segituz, urte osoan erabiltzeko esaldia aukeratu zuen: *Tontor eta ibarretan euskeraz berriketan* da esaldia eta Jon Andoni Aspe egilea.

GIZARTEA

**Zabaldu dute
Tellamendiko
gurutzearen
gaineko
erakusketa**

Domekaz geroztik, eta datozen hiru domeketan, zabalik dago Tellamendiko gurutzearen gaineko erakusketa. Ehunka argazkiren eta dokumenturen bitartez, 1935ean ipini, 1977an berri eta 2002an zaharberri dute gurutzearen historia erakutsi gura izan dute Sastiñako ermitan. Modu horretan ospatuko dute Guardia Zibilak gurutzea bota eta gero berriro ipini zuteneko eguna. Horrez gain, uztailaren 21ean, urteurren ospakizun eguna egingo dute. Horretarako, 11:00etan, meza esango dute gurutzearn eta gero, trikitilariak lagunduta, luntxa egingo dute Andramarin. Tellamendiko gurutzea 1935ean ipini zuten Aramaion. EAJko kideek osatutako Lurgorri taldeak ipini zuen. Gero, 1977an, Guardia Zibilak bota egin zuen lehergailu baten bitartez. Aramaioarrek berriro ipini zuten gurutzea Tellamendin, eta orain, zaharberri dute.



BOTEPRONTOAN/ Gurutze Uribarren · Trikitixa Eskolako irakaslea

“Arrasatera joaten hasi ginenean bakarrak ginen, ez zegoen beste inor, ezta gure aurretik ere”

Kalera irteten direnean sekulako talde handia dela da igartzen dugun lehenengo gauza. Nolatan dago Aramaion trikitiarekiko horrenbesteko zaletasuna? Horrelako galderen erantzuna topatzera Aramaioko Trikitixa Eskolara joan gara oraingo astean. Gurutze Uribarren trikitilari eta irakasleak argitu dizkigu zalantza guztiak:

Noiz hasi zinen trikitiarekin?
Hamabi-hamahiru urterekin hasi nintzen trikitia ikasten. Arrasaten bost urtez ibili nintzen, eta gero, 17 urterekin eskolak ematen hasi nintzen (96-97. urtean). Baina ni zalea besterik ez naiz, hau da, hori ez da nire ogibidea.

Talde handia duzu...
Dezente handia, bai. Pandero jotzaileak eta trikitilariak gehituta, 50 bat lagun ibiliko dira. Horrez gain, eskola utzi dutenak ere gurekin etortzen dira jotzera; hortaz, ez dakit guztira zenbat garen. Bost bat urte dela sortu zen eskola. Kalejira Taldea dugu izena. San Martin Eskolan egiten ditugu entseguak, Udalak emandako lokaletan.

Irakasle bakarra zara?
Ez, panderoa erakusten ahizpa, Josune, dabil.



“Pandero jotzaileak eta trikitilariak gehituta, 50 bat lagun ibiliko dira Trikitixa Eskolan”

Zenbat eskola ematen duzue?
Nik, astean zazpi bat ordu. Hiruzpalau laguneko taldeetan banatzen ditut. Gero, panderoan talde handiagoak ere sartu ahal dira. Ikasle bakoitzak astean ordubeteko eskola du.
Zelatan dago horrenbesteko zaletasuna Aramaion?
Beste barik. Gu Arrasatera joaten hasi ginenean bakarrak ginen. Ez zegoen beste inor. Gure aurretik ere ez dago inor. Horrela, gu Arrasaten hasi ginen, eta poliki-poliki jotzeko deitzen hasi ziren Aramaioetik: Inauteriak, jaiak... Handik aurrera, beste bi edo hiru hasi ziren Arrasaten ikasten. Baina, jakina, Arrasatera etortzea ez da oso eroso. Eta umeen gurasoek proposatu ziguten hurrengo urtetik aurrera gu geu hastea eskolak ematen. Udalarekin berba egin zuten,

lokala lortu zuten, bi instrumentu erostea lortu zuten... eta horrela hasi ginen. Orain, hiru soinu ditugu, eskolakoak.
Eta zu zela hasi zinen, lehena go ez bazegoen besterik?
Gustatu egiten zitzaidan, erromerietan, telebistan... ikusita. Horrez gain, anaiak etxean akordeoi handia zuen eta beti izan dugu solfeorako zaletasuna. Horrela, instrumentua aukeratzeko orduan, amak akordeoi hura aprobetxatzea gura zuen, baina ez zitzaidan gustatzen haren doinua, trikitiarena gustatzen zitzaidan. Ondorioz, ama sakrifikatu egin zen, jakin zuen non ematen zituzten eskolak eta zapatuero, 09:00etarako, ekartzen ninduen Arrasatera.
Zein ekintza egiten duzue?
Arabako Trikitilari Elkartearen barruan gaude eta haiek antolatzen dituzten ekitaldiak joaten gara. Txapelketetan ere parte hartu izan dugu...
Zela ikusten duzu etorkizuna?
Jaisten ari da taldea eta, orokorrean, trikitia. Orain, trikiti-festa beharrean, disko-festa dute gogoko. Normala da, modak aldatu egiten dira. Dena dela, oraingoz, taldearen etorkizuna ziurtagarria dago. Baina ezin da jakin noiz arte.

“Orain, trikiti-festa beharrean disko-festa dute gogoko. Normala da, modak aldatu egiten dira”

HERRIKOJAIK

JAIEN BALORAZIOA

Sanmartinak bukatu direla-eta, jaien balorazioa egiteko eskatu diegu antolatzaileei. Haien izenean Aitziber Aginagaldek berba egin du eta haren esanetan, eguraldiak zerikusi handia izan du Aramaioko aurtengo jaietan. Izan ere, “gauza batzuk pilotalekuan egin behar izan dira, adibidez, borroka librea, erromerriaren bat...”.

Edozelan ere, jaiak oso ondo egon direla uste du Aitziberrek. “Beste urte batzuetan baino jende gutxitxoago ibili da, baina ondo, jendea animatuta ibili da-eta. Gainera, ez da izan inolako arazorik”.

Arrakasta handien izan dituzten ekitaldiak, berriz, honakoak izan dira, Aitziberren ustez: bertsolarien saioa, Arrasate Musika-kaleko musika emanaldia eta umeendako antolatutakoak. Arrakasta txikien, berriz, gaueko erromeriek izan dituztela kontatu digu Aitziberrek.

Datorren urtea zelan ikusten duten ere galdetu diegu, eta “datorren urtean ikusi egin behar” izan da Aitziberren erantzuna.

Hortaz, atsedeen hartzen utziko diegu, eta, horrenbestez, datorren urterako utziko ditugu datorren urtekoak.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Borika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erizaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

BAZTANDARREN BILTZARRA

Txirritola Euskara Elkarteak Baztandarren Biltzarre-ra joateko autobusa antolatuta du. Baztandarren Biltzarra uztailaren 21ean (domeka) izango da, Elizondon, eta, besteak beste, 1.300 laguneko herri bazkaria egongo da. Hortaz, Elizondora joan gura duenak 15 euro ordaindu beharko ditu autobusarengatik eta bazkariarengatik. Autobusa 08:00etan irtengo da autobus geralekutik. Liburutegian, Udalean edo Goiko tabernan eman daiteke izena.


Baztandarren Biltzarrean Baztango bailara osatzen duten 15 herriak batzen dira. Eta beste saio batzuen artean, karroza kalejira egiten dute; hau da, herri bakoitzak urtean barrena karroza prestatzen du, eta gero, dantzarien eta musikaren laguntzarekin, Baztandarren Biltzarrean erakutsi egiten du. Herriak eta herriaren partaidetzarekin egiten den eguna izaten da. Horrela, Txirritola Euskara Elkarteak biltzarre-ra joan, ikusi eta, gero Aramaion antzerako zerbaitekin daitezkeen aztertu gura du.

TXALAPARTA IKASTAROA

Datorren astean Txalaparta ikastaroa izango da Aramaion. Uztailaren 15etik 20ra arte izango da. Irakasleak: Gorka Arias eta Alex Mendikute aramaioar txalapartariak. 19:00etatik 20:00etara izango dira eskolak, parkean. Eguraldi txarra eginez gero, eskolako aterpean emango dute eskola. Txirritola elkarteak antolatuta du ikastaroa eta doan da.



DETRAKAREKIN BETI ONDO Barikuan iritsi zen Detraka taldea Aramaiora. Euren hankaluzeak eta arropa koloretsuak jantzi eta Ibarra goitik behera egin zuten, herriko ume mordoak atzetik zituztela. Gozokien, konfetiaren eta musikaren laguntzarekin, bide osoan izan zituzten gaztetxoaren barre algarak eta, zenbaitzuen artean, beldur oihuak. Gero, astelehenean, *Trikimailu Berria* erakutsi zieten Aramaioko umei, eta horiek, zein baino zein pozago, adi-adi izan ziren taldeari begira.



Txupinazoa jaurti eta jaiari hasiera eman zien Iñaki Nafarrate alkateak.




TORTILLA LEHIAKETA Oso partaidetza urria izan du aurten Tortilla Lehiaketak. Hiru bikote bakarrik agertu ziren herriko plazan tortilla goxoak prestatzeko gertu. Tartean, Erdiko Txoko elkarteko bi kide. Eta hain justu ere, azken bi horiek izan dira aurtengo irabazleak: Joxe Goronaeta *Kono* eta Enrike Ibañe. Bikoteak animoso joan ei ziren lehiaketara eta tortilla bina egin zuen bakoitzak. Gero, lehiaketa bukatutakoan, pintxoak banatu zituzten herritarren artean. Hor bai ibili ei zen jende dezente!



Eguraldiak askorik ez lagundu arren, zenbait kementsu ibili ziren mahuka aurrean.




KALEAN GORA, KALEAN BEHERA Patxi Aiañe, Joakin Aiañe eta Juan Jose Aiañe txistularien doinu goxoak ere entzun ahal izan ditugu San Martin jaietan. Barikuan eta domekan Ibarra ibili ziren jaiak giroten. Aspaldiko taldea dugu Aramaioko txistulariena, eta aski ezaguna herritarren artean. Baina dagoeneko ez dira horren maiz irtetzen musika jotzera; hortaz, jaiak eta horrelakoak aukera ezin hobekak dira euskaldunon aspaldiko doinuak entzuteko.



Maidar Unda txapeldunak borroka librean apur bat gehiago ezagutarazi zuen herrian.




Plater tiroketan, 40 lagunen artean, Mikel Aiastuik eta Enrike Ullibarriaranak irabazi zuten.



Bertsolaritza bizi-bizirik dago herrian; horren adierazle, bertso saioaren arrakasta.



Ikusten duzuenek, herri afarian moztorroak eta umore ona izan dira nagusi.



ARRAKASTATSUAK TXIRRITOLINPIADAK Pozik dira aurten Txirritola Euskara Elkartekoak Txirritolinpiadetan izandako parte hartzearekin. Bederatzi hirukote lehiatu ziren, 27 lagun. Bi mailatan banatu zituzten, 12-16 urte artekoak eta 17tik aurrerakoak. Lehenengo mailan, 12-16 urtekoen artean, Martin, Jon eta Iker izan ziren irabazleak eta 17tik aurrerakoen artean, Leire, Javi eta David. Edozelan ere, parte hartu zuten guztiek erakutsi zuten oso sasoi onean daudela. Zorionak, guztioi!



HORI DA HORI TALDEA! Argazkian ikusten den moduan, Trikitixa Eskolako ikasle mordoak irten dira jaietan trikitixa doinuak jotzera. Gurutze eta Josune Uribarrenen gidaritzapean, urtean barrena eskolan ikasten dituztenak erakutsi zituzten kalerik kale. Esan beharra dago Trikitixa Eskola sortu zenetik hona trikitixarekiko sekulako zaletasuna piztu dela Aramaion, eta azkenaldian, herriko trikitilariak jairik jai ibiltzen dira, jai giroari indarra ematen. **Argazkiak:** Jon Berezibar, JL Nafarrate, Mikel Saiz eta Ubane Madera.

ERRETRATUZAHARRA

Arrasateko errementariak gogoratzen



Inauguratu berri duten Industria Erakusketan Arrasateko errementariak ere gogoan izan dituzte: Bixente Barandiaran eta Josu Otadui, besteak beste. Geuk ere gauza bera egin, eta irudiotako argazki zaharra ekarri dizuegu tarte honetara. 1988an dago aterata argazkia, baina askoz ere garai zaharragoak ekartzen ditu gogora. Gure berriemaileak, Josu Otadui, ondo asko gogoratzen duenez, 1930-31n ekin zion Bixente Barandiarenekin (Arrasateko-azkeneko errementaria) Josuren aitarekin (Tomas Otaduirekin) lanari, "ofizioa ikasteari". 17-18 urte ei zituen Bixentek. Bixenterekin batera, babespean hartutako beste langile bat ere bazebilen: Agustin Salaberria Torre, hain justu ere.

Josuk kontatu digunez, 1932an, aita, Tomas, gaixotu egin zen eta urte bereko irailean hil egin zen. Garai hartan, Bixente Barandiaran euren etxean zegoen, lanean, eta Torre, berriz, soldadu. Horrela, 12 urterekin, Bixente Barandiaranekin lanean ibili zen Josu Otadui, argazkian ikusten duzuen moduan: Bixente mailukare-

kin eta Josu mailuarekin. Gero, Torre itzuli egin zen eta Bixente joan zen soldadu. Eta soldadutza bukatzean, ez zen berriro itzuli Otaduitarrenera, "ez zegoen-eta lanik hirurendako". Gauzak horrela, Josu Otadui Agustin Salaberriarekin segitu zuen lanean, 1936ra arte. "Gerra piztu zen orduan;

Torre miliziano joan zen eta ni, 16 urterekin, bakarrik geratu nintzen errementari".

Errementari batek zer egiten zuen garai hartan ere galdetu diogu Josu Otadui: "Baserriko tresneria konpondu, berriro edo berriak egiten genituen", erantzun digu: "Artareak,


burdinareak, aitzurrak, gurdi erruberrak... Horrez gainera, perratzaile lanak ere egiten zituzten.

Argazkia eta berriemaileak: Josu Otadui
Urtea: 1988. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Cometal lantegia eta ospitalea


Orain dela berrogeita hamar urteko argazkia da hori. Argazkiko eraikina orduko Cometal lantegia da, gero Eskola Profesionala izango zena. Eraikinaren aurreko aldean trenbidea argi eta garbi ikus daiteke, geltokia 100 metrora zegoen. Egun, ez dago trenbidearen arrastorik, baina geltokiaren eraikinak oraindik zutik dirau, hurrengo trenaren zain.



≈ 1950 Lantegi izatetik eskola izatera pasatu zen eraikina, eta gaur egun ospitalea da, berri-tuta eta handituta.



2002 Argazki horretan ospitalearen aurreko aldean azaltzen da, baina eraikin zaharra atzeko aldean dagoena da, argazkian ikusten ez bada ere.

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Iturriotz 4. ARRASATE
Tel.: 943 79 14 84



Udako eskaintza bereziak



Aitor Belardenda

*Udan, zain ezazu zure
azala era naturalean*



Santiveri

Osasuna eta elikadura

Olarte 7. Arrasate
Tel.: 943 79 90 43

Eskaintzen dizugu:

- Produktu dietetikoak
- Sendabelarrak
- Kirol dietetika
- Elikadura naturala
- Kosmetika naturala
- Dieta pertsonalizatuak

Eta gure espezialisten aholkularitza dietetiko osoa.



fordfocus

aire egokituarekin

12.000€-tik aurrera



Gozatzeko pentsatuak,
irauteko eginak



Gomendatutako salneurria. Focus Intro 1.4 75 ZP. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne.
Prever Gasolina Plana barne. Baliozkoa 2002ko uztailaren 10a arte.

MUGARRI AUTOAK

Araba etorbidea z/g

ARRASATE

Tel.: 943 797 564

902 442 442
www.ford.es